

## Legazpiko Agenda 21eko Foroaren Akta

2017ko uztailaren 6an, 18:00etatik 20:15era,  
Legazpiko Kultur Etxean



**Legazpiko mugikortasun iraunkorrerako Plan berria: eztabaidarako proposamenak**

### 1. Gaia, testuingurua eta helburua

Gaurko tailerrean honako gaiari heldu diogu: **Legazpiko mugikortasun iraunkorrerako Plan berria**. Ohikoa ez den uda garaiko egun batean egin dugu tailerra, ordutegi zabalagoarekin eta Kultur Etxean. Horrela, Haizea-Deloitte enpresako talde teknikoaren laguntzarekin Udala bultzatzen ari den prozesura egokitzen saiatu gara.

Aipatu plan berriaren diagnostikoa egin zenean, Agenda 21eko Foroak dagoeneko bere lehenengo ekarpena egin zuen. Zehazki, joan den apirilaren 6ko tailerrean, talde teknikoak egin zuen diagnostiko teknikoari buruz bere iritzia eman zuen eta sakondu beharreko alderdiak adierazi zituen.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Testuinguru horretan gaur urrats bat gehiago eman nahi dugu; hauxe da bilatzen duguna:

### Tailerraren helburua:

- Plan berrirako Haizea-Deloitte taldeak planteatu dituen ekintzen eta neurri zehatzen proposamen teknikoa zein den ezagutzea.
- Oinezkoen mugikortasunari, bizikletarien mugikortasunari, trafikoaren antolamenduari eta aparkalekuei buruzko proposamenak zehatzago aztertzea eta eztabaidatzea, honakoak identifikatzeko:
  - Partekatzen ditugun eta egokitzen jotzen ditugun neurriak.
  - Zalantzak sortzen dizkigun neurriak eta, ondorioz, egon daitezkeen beste aukera batzuk arakatu.

Has gaitezen!

## 2. Parte hartu duen taldea

Guztira, 27 pertsona -12 emakume eta 15 gizon-. Eskerrik asko parte hartu duzuelako eta gaurko zereginean –konplexua eta zaila– izpiritu kritiko eta eraikitzailearekin lan egin duzuelako. Primeran!

### Bizilagunak:

Manuel Fernandez (Nagusilan) – Jose Ramon Hernandez – Montse Vallejo – Xabier Baztarrika eta Rafa Gomez (Buskabaso) – Jesus Lazkanoiturburu – Lucia Areizaga – Ana Moreno, Maite Berasategi eta Lurdes Etxaniz (Eiluz) – Pilar Makibar – Joaquin Balerdi eta Mariaje Ugalde (Harri Urdin Brinkolako auzo elkarte) - Gurutze Laboa (Legazpiko Ingurugela) – Mikel Perez de Arenaza - Rogelio Barbeira - Juan Karlos Agirre.

### Udal arduradunak:

Iñigo Imaz (zinegotzia) – Sagarrio Etxabe (zinegotzia) – Rakel Puente (zinegotzia) – Javier Iraeta (zinegotzia) – Alberto Bezunartea (zinegotzia) – Eric Galvez (zinegotzia) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Koldobike Olabide (alkatea) – Fernando Agirre (udaltzainburua) – Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen saileko teknikaria).

### Laguntzaile teknikoak:

Maidier Etxaniz, Haizea-Deloitte taldeko kidea. Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea enpresako kideak, dinamizazio-lanetan.

### 3. Mugikortasun iraunkorrerako plan berria: eztabaidarako proposamenak eta Foroaren ekarpena

#### Aurkezpena talde teknikoaren eskutik

Lehenbizi, Maider Etxaniz Haizea-Deloitte taldeko kideak plan berrirako planteatzen duten proposamen teknikoaren edukia azaldu du zehatz-mehatz: ikuspuntua, helburuak eta proposamen eta neurri zehatzak.

Bere parte hartzean azpimarratu duenaren arabera, planaren oinarrian abiapuntuko 4 irizpide nagusi daude proposatutako neurriak arrazoitzen dituztenak; hauek dira:

#### 1. Hiri-eremu publikoaren erabilera arrazionalagoa eta hobeagoa lortzea

- Espazio publikoa mugatua da eta era desberdinetan partekatu behar da.
- Planak oinezkoen mugikortasunaren aldeko apustua egiten du:
  - Bere azpiegituren erakargarritasuna handituz
  - Hirigunearen eta auzoen arteko lotura hobetuz

#### 2. Bizikletaren eta motordun ibilgailuen arteko elkarbizitza bultzatzea


- Bizikletaren eta motordun ibilgailuen arteko elkarbizitza sustatuz
- Bizikletarentzako azpiegitura batzuk oinezkoen alde liberatuz
- Bizikletaren erabilera sustatzea herritarrek prestatuz eta heziz

#### 3. Herritarren mugikortasun motorizatuaren jokabidean eragitea

- Hirigunean ibilgailu pribatuen abiadura motelduz
- Bidegurutzetan gatazkak murriztuz
- GI-2630 errepidean barruko trafikoak bideratuz
- Joan-etorri motzetan (auzoak-hirigunea) ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz.
- Bertakoentzako gaueko aparkatzeak hobetuz

#### 4. Garraio publikoaren erabilera bultzatzea

- Azpisistema desberdinen artean intermodalitatea hobetuz (hiri-busa – hiri eta hiriarteko busa – Renfe).
- Zenbait auzotan hiri-autobusaren funtzionalitatea hobetuz
- Legazpiko Renfeko geltokian irisgarritasuna hobetuz



Eta irizpide horietan oinarrituta hauxe da planaren egitura: 6 jarduera-ardatz eta 20 neurri zehatz. Horiek ondorengo loturan ikusgai dagoen dokumentuan ikus daitezke: [http://www.legazpi.eus/files/Agenda21/Legazpi\\_Pmus\\_Foro\\_Proposamenak-Propuestas.pdf](http://www.legazpi.eus/files/Agenda21/Legazpi_Pmus_Foro_Proposamenak-Propuestas.pdf)

## Zalantzak argitzen

Azalpenaren ondoren, eta talde lanarekin hasi aurretik, parte hartzaileek egindako galdera-iruzkinak jaso ditugu:



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### **Galdera:** Ze irtenbide proposatzen da oinezkoentzako Motxorrotik Pastain baserrira eta Pastain baserritik Brinkolara doan bide tarterako?

Arazoa da oinezkoek errepidetik joan behar izatea eta errepide horien eskumena Aldundiarena da. Bere egunean 3 aukera proposatu ziren baina ez da ezer egin. Auzoak konponbide bat eskatzen dio Udalari, gaia Aldundiaren eskuetan bakarrik utzi gabe.

Haizea-Deloitte taldeko kideak eskaria jaso du eta Udalarekin egingo dute lan ea plan berrian zer egin daitekeen.

### **Galdera:** Planaren proposamenean, non geratzen dira mugikortasun urria duten pertsonak?

Zehazki, nondik joan behar dute gurpildun aulkian dabilzan pertsonak? Espaloietatik? Galtzadatik? Irisgarritasun plana bete gabe dagoelako eta zailtasunak eta trabak daude oraindik.

Eta minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako gordetako aparkalekuei dagokienez, betetzen al da araudia?

Lehenengo puntuan Mainerrek irisgarritasun plana ekarri du gogora eta plan hori lan honetatik kanpo dagoela esan du. Minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako gordetako aparkalekuei dagokienez, egindako diagnostikoan araudia ez dela beti betetzen ikusi da.

## Planteatutako proposamenen azterketa eta eztabaida: Zer da partekatzen duguna? Zerk sortzen digu zalantza?

### Talde lanaren planteamendua

Segidan, gaurko helburu nagusiari ekin diogu. 4 taldetan banatuta, eskuartean planoak eta paperak hartuta, talde bakoitza planean jasotako eremu bat eta bertan jasotako proposamenak aztertzeaz arduratu da:

1. Oinezkoen mugikortasuna
2. Bizikletarien mugikortasuna
3. Trafikoaren antolamendua
4. Aparkalekuen kudeaketa

Oharra: denbora mugatua dugunez, gaur gure azteketatik kanpo utzi dugu garraio publikoari dagokiona, planteatutako proposamenak erraz partekatu daitezkeelakoan.

Talde lanaren ondoren, talde bakoitzaren ondorioak guztion artean partekatzean hasierako proposamena hobetzea eta aberastea ahalbidetuko duten gako nagusi eta xehetasun batzuk atera ditugu.



### Emaitzak

Eremuz eremu, ikus dezagun Agenda 21eko Foroak talde teknikoari egiten dion ekarpena. Urdinez azpimarratu ditugu talde bakoitzaren ñabardura kualitatiboak.

### 1. Oinezkoen mugikortasuna

Oro har:

- Hirigunean oinezkoei lehentasuna ematearena oso ondo baloratu da; halaber ondo baloratu dira 1., 2. eta 3. proposamenak.
- Zalantza nagusiak landa-eremuan sortzen dira: adibidez, Brinkola eta Telleriarten oinezkoen igarotzea nola erraztu –4. proposamena– eta Latxartegin trafikoa murrizteko zutoina jartzeko proposamena.

Zehazki:

Ondo baloratu diren neurriak:

- 3. proposamena: Azpikoetxetik industrialdera igarotzeko oinezkoen pasabidea egokitzea.

Ondo baloratutako neurriak eta Foroaren ekarpenekin aberasten direnak:

- 1. eta 2. proposamenak: oinezkoentzako ibilbideak eta esku-hartzeak hiriguneko auzoetan. **Hainbat puntu kritiko antzeman dira eta horietan eragin beharko da:**
  - Elizaren eta Laboral kutxaren arteko bide tartea, bertan garraio modu askok topo egiten dutelako.
  - Espaloi estua ikastola aldean.
  - Pasabide estua San Juan auzoko haurreskolaren sarreran.
  - Itxaropen auzora igotzeko botika ondoko eskailerak.
  - “Bodega Riojana” delakotik Juanastegi kalera doan espaloia.
  - Suhiltzaileen parkera iritsi baino lehen Urretxutik datoren bidegorriaren lotura.

Hobetu beharreko neurriak:

- 4. proposamena, hirigunearen eta auzoen arteko oinezkoen ibilbideak egokitzea. **Planean proposamen zehatzak sartzea komeni da honako eremuetarako:**
  - Olaberria auzoa.
  - Motxorrotik Pastain baserrira eta Pastain baserritik Brinkolara doan bide tartea (Gaztaren museora joateko ere ez dago oinezkoentzako biderik) –hori Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lantzeko gaia da-.

Azter daitezkeen ideia berriak:

- Latxartegi oinezkoentzako eremua bihurtzeko proposatutako zutoinaren kokapena aldatzea; zutoin hori Kultur Etxe parean kokatzea proposatzen da, ikastolako pilotalekuko aparkalekuak mantentzeko.

### 2. Bizikletarien mugikortasuna

Oro har:

- Oso ondo baloratu da bidegorrien sarea osatzeko ideia orokorra.
- Modu berean, eta filosofia partekatuz, bizikletariak eta autoak galtzada bera partekatzeak zalantza edo beldurra sortzen du, batik bat haurrei dagokienez.  
Horren haritik, inkestetan zalantza jartzen da galtzadan bidegorria pintatzea edo galtzada pintatu gabe uztea komeni den.  
Leku edo bide-tarte kritikoena Juanastegi kalerako planteatu den proposamenean jasotakoa da.

Zehazki:

Zehatzago aztertu beharreko leku/bide-tarteak:

- Juanastegi kalea: aukera desberdinak proposatzen dira:
  - Aparkalekuak alde batean bakarrik jartzea eta beste aldean bidegorria egokitzea, Laubide auzorantz joateko.
  - Aparkalekuak mantentzea; berdegune zati bat kenduz bi noranzko bidegorria sortzea, igogailuaren arrapalaraino.
- San Ignazio auzora igotzeko bidea: segurtasuna bermatzeko honakoa proposatzen da:
  - Bizikletak autoekin batera igo dezatela aldapa baina galtzada pintatu gabe utzi.
  - Kontrako aldean, aldapa jaisteko bidegorri berezia sortzea.
- Laubide auzora igotzeko errotonda: errotondaren ezkerreko aldean bidegorriarekin lotura egokitu eta igotzeko bidegorri berezia jarri. Beherazkotan autoekin batera jaitsi –zalantzak sortzen ditu haurren segurtasunak–.
- Lotura Lanaren hiribidetik egin, aldapa gora delako. Semaforoa sakagailuarekin jartzea proposatzen da.
- Motxorroko bidegurutzea, bertan gurutzatzen direlako autoak, oinezkoak,....

Atzera botatzeko jardunbideak:

- Erreka ondoan proposatu den bidegorria: ez da beharrezko ikusten. Oinezkoentzako pasabidea mantentzea proposatzen da.





## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte-hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### 3. Trafikoaren antolamendua

Oro har:

- Azterketa sakonagoa egiteko zain, zalantzak sortzen dituzten bide-tarte eta lekuak antzeman dira.

Zehatzago aztertu beharreko leku/bide-tarteak:

- San Ignazio:
  - San Ignazio 24tik 34ra doan bide-tartean bi noranzko zirkulazioa jarriz gero, aparkaleku asko galduko lirateke eta bide luzeagoa egin beharko litzateke.
  - San Ignazio 41-37rako aurreikusitako sarbidea kendu.
- Lanaren hiribidea: ez da garbi ikusten kale hori noranzko bakarrekoa izatea.
- Noranzko-aldaketa Plazaola kalean –udaletxeko aparkalekuaren irteera saihesbiderantz bideratzeko proposatutako aldaketarekin batera–.
- Txorronea: zehatzago aztertu beharra dagoela erabaki da:
  - bertan esku hartzea eskatuko duen arazoren bat dagoen
  - edo seinaleak hobetzearekin nahikoa den aztertzeke.

### 4. Aparkalekuen kudeaketa

Oro har:

- Egokitzat jo dira aparkalekuak berregokitzeko edo/eta aparkalekuak sortzeko egin diren esku hartze txikiak.
- Zalantza handiena gaueko aparkalekuak sortzen du eta orain arte proposatu diren konponbideek ez dute konbentzitzen.

Zehazki:

Egokitzat jo diren neurriak:

- 2. proposamena: lurrazaleko aparkalekuen antolamendua.  
Oharra: plaza berrien kalkulutik Latxartegiko aparkalekuak kendu beharko dira, zutoina lekuz aldatzea erabakitzen bada.
- 4. proposamena: Plazaola kalean TAO gunea handitzea.
- 5. proposamena: Zamalanak.
- 6. proposamena: Fiskalitatea, hura aplikatzearen zailtasunen jakitun izanik.

Zalantzak/debatea sortzen dituzten neurriak:

- 1. proposamena: paper-fabrikako aparkalekua handitzea eta berrantolatzea.  
Espazio hori ondo egokitzea inbertsio handiko lana da, espazio hori behin-behinekoa dela kontuan hartzen bada. Plantea daiteke behin betiko irtenbidea izatea eta horren arabera jokatzeko?  
Ondo baloratzen da aparkalekuaren sarbideak eta Azpikoetxeko pasabidea egokitzea.  
Eztabaida sortzen duen beste alderdi bat aparkalekuaren ordainketa da. Bidezkoa da industrialdeko langileek hor aparkatzeagatik ordaindu behar izatea?
- 3. proposamena: egoiliarrentzat gaueko aparkalekua hobetzea  
Ez da ontzat ematen Latxartegin lurpeko aparkalekuaren alde egin den apustua, horrek trafikoa areagotuko duelako hirigunean.  
Itxaropen eta Laubide auzoetan aparkalekuak handitzeko 2. aukerari dagokionez, bizilagunek bizi diren etxe inguruan aparkatzea bilatzen dutela esan da eta ez etxetik urrun dauden lekuetan.  
Oro har, Legazpiko aparkaleku "handi" gehienak behin-behinekoak direla azpimarratu da eta arazoari ez zaio behin betiko irtenbide bat ematen. Landu daiteke gai hori eta behin betiko irtenbide bat eman?

Azter daitezkeen ideia berriak:

- Taldearen adostasuna jaso ez bada ere, beste proposamen hau jaso da: Kultur Etxe ondoan, berdegunearen zati bat okupatuz, 5-6 aparkaleku gehiago egokitzea. Horrela eginez gero, Osasun-zentrorako behar diren plazak gorde daitezke.

Amaiera ematen diogu ariketari eta talde-solasaldiari, 2 ideia nagusi azpimarratuz:

- Denbora gehiago behar da proposamen teknikoa lasaiago eta zehatzago aztertu ahal izateko.
- Zalantza handienak sortzen dituzten alderdiak antzeman dira eta hori lehen pausua izan daiteke mugikortasun planaren hurrengo urratsak errazteko eta plana zehazteko. Zehazki, ondorengorako proposatu diren irtenbideekin dute zerikusia:
  - Oinezkoen eta bizikletarien mugikortasuna Juanastegi kalean.
  - Latxartegin zutoina jartzea.
  - Landa-auzoetara iristeko oinezkoentzako ibilbideak egokitzea.
  - Trafikoaren antolamendua San Ignazio auzoan.
  - Udaletxeko aparkalekuaren irteera eta trafikoaren antolamendua.
  - Txorroneako bidegurutzia.
  - Paper-fabrikako aparkalekua.
  - Egoiliarrentzako gaueko aparkalekurako planteamendua.

## 4. Bukatzera goaz!

Bereziki eskertzen dugu taldearen parte hartzea eta lana, jakinik informazio asko zegoela eta gaurko jarritako helburua oso konplexua zela 2 orduko tailer batean lantzeko.

Gai horretan sakontzen jarraitzeko gogoarekin, Agenda 21eko Foroak eta Legazpiko Udalak egokitzen joz gero,

eta uda on bat izan dezazuela desiratuz,

**Itzultzean ikusiko dugu elkar, indarberrituta.  
Mila, mila esker guztioi!**